



urkoa

ZERBITZU OROKORRAK

Morlans, 13 behea
20009 Donostia

Telefonoa 943 468 956
idazkari@hurkoa.eus

LAGUNTZA-NEURRIAK

Morlans, 13 behea
20009 Donostia
Telefonoa 943 468 956
idazkari@hurkoa.eus

Gernikako Arbola Pasealekua, 16
20006 Donostia
Telefonoa 943 468 956

Ferrerias, 32 behea
20500 Arrasate
Telefonoa 943 770 938

Geltoki, 7
20301 Irun
Telefonoa 943 568 640

Kale Nagusia 60 behea
20720 Azkoitia
Telefonoa 943 468 956

EGUNEKO ZENTROA

Ntra. Sra. de las Mercedes
Nafarroa Etorb., 31
20013 Donostia
Telefonoa 943 293 111
cdmercedes@hurkoa.eus

AURKIBIDEA

4-7 Hurkoa: erreleboa, jarraitutasuna eta etorkizuna

8 Hurkoaren 35. urteurrena

10-13 “Desgaitasunerako borondatezko laguntza”
Elkarriketa José Ángel Martínez Sanchiz notarioari

14-15 Hurkoa Sareginez-en: Gipuzkoan boluntariotza indartzeko sarea

16-18 Familien ongizatea areagotu egiten du Ntra. Sra. de las Mercedes eguneko zentroaren zerbitzu zabal, malgu eta gizatiarrak

18 Elkarrekin Bila: errutina alde batera utzi eta bide berriak partekatzeko esperientzia

19 Laguntza-neurriak: erabakian lagundu, duintasuna zaindu

20-21 Amaia Barea: “Gipuzkoako familien zerbitzura jartzen dugu gure esperientzia”

22-24 HAUSKOR: mendekotasunari aurrea hartzea

GURE ALIANTZAK



HURKOA 2025



ARTATUEN KOPURUA

LAGUNTZA-NEURRIAK **614**

EGUNEKO ZENTROA

Astelehenetik ostiralera **80**

Asteburuetan **39**

HAUSKORTASUNA **62**



FINANTZAKETA EGUNEKO ZENTROA

Diru-sarrerak **1.522.630,17€**

Gastuak **-1.613.722,05€**

Finantzaketa publikoaren **71,75%**
portzentajea

HAUSKORTASUNA

Diru-sarrerak **127.669,37€**

Gastuak **-145.545,67€**

Finantzaketa publikoaren **74,03%**
portzentajea

LAGUNTZA-NEURRIAK

Diru-sarrerak **2.289.798,47€**

Gastuak **-2.015.682,95€**

Finantzaketa publikoaren **81,33%**
portzentajea



PROFESIONALAK 71

BOLUNTARIOAK 74

NON GAUDE

Irun
Donostia
Tolosa
Azkoitia
Arrasate



HURKOA: erreleboa, jarraitutasuna eta etorkizuna

Hurkoaren bilakaera eta erronkak nola ikusten dituzten azaldu digute Marta Álvarez de Arcaya presidente berriak eta José Luis de la Cuesta orain arteko presidentek.

Marta, Hurkoaren presidentziara iritsi berria zara. Zer aldaketa ekarri dio zure bizitzari urrats horrek?

Marta Álvarez de Arcaya:

Ez nuen espero horrelakorik. Nire bizitzako une honetan —erretiroa hartu ondoren—, gizarteari ekarpenak egiten jarraitzeko asmoa nuen, baina beste era batera; beharbada, zuzeneko erantzukizun txikiagoak nireganatuz. Horregatik, kargua hartzea proposatu zidatenean, harritu egin nintzen.

Dena dela, oso barneratua dut zera ere: bizitzak aurrean jartzen dizun hori entzuten jakin egin behar dela. Kasu honetan, gainera, Hurkoaz ari gara: sortu zenetik nago estu lotuta erakundeari, eta bihotzez estimatzen dut, pertsona zein profesional gisa.

Egia da hasieran ez niola ekin erronka honi izugarrizko ilusioarekin, nire bizitzako beste garai batzuetan ez bezala. Baina erabat aldatu da hori azken hilabeteotan, eta areagotu egin da nire ilusioa lantaldeak, haien lan egiteko era, haien konpromisoa eta eguneroko jarduera ezagutu ahala. Orain, zalantzarik gabe diot erabatekoa dela nire konpromisoa, eta lanerako gogo biziz nagoela.

José Luis: zuk, utzi berria duzu presidentzia. Nola bizi izan duzu erreleboa? Zer adierazi nahi duzu une honetan?

José Luis de la Cuesta:

Arazo pertsonalek eragin handia izan dute erreleboan; zehazki, osasun-kontu batek bultzatu nau presidentzia uztera. Egoera horretan, zera behar genuen, erantzukizunez eta eskuzabaltasunez jardungo den norbaitek bereganatzea kargua. Eta, hain zuzen ere, horixe azpimarratu nahi dut Martaren jokabidetik: eskuzabal jardun dela, bere aurreikuspenetan ez zegoen une batean onartu baitu presidentzia.



«Zer azpimarratuko nukeen José Luisen jardueratik? Bada, une zailtan erakundeaz arduratzeke izan duen gaitasuna, eta etengabeko konpromisoa».

Marta Álvarez de Arcaya

Niretzat, funtsezkoa zen presidentzia bereganatzen zuenak ondo ezagutzea Fundazioa, haren ibilbidea, lan egiteko era eta balioak. Oso-osorik betetzen ditu Martak baldintza horiek: Hurkoaren hasieratik dago hari lotuta; ongi ezagutzen du erakundea eta, gainera, adinekoen arretarekin lotura estua duenez bere ibilbide profesionalak, balio erantsi are handiagoa dakar berekin.

Nire laguntza eskaintzen diot, eta nire konfiantza adierazten (baita maitasuna ere). Ziur naiz ondo lan egingo duela, orain arte eraikitakoaren bidetik jarraituko duela eta, aldi berean, bere estilo propioa eta gauzak egiteko era ekarriko dituela. Nire ustean, oso positiboa da erakundearentzat jarraitutasunaren eta berrikuntzaren arteko oreka hori.

M.A.A.: Niretzat ere ardura handia da orain arte egindako lanari jarraitutasuna ematea. Zer azpimarratuko nukeen José Luisen jardueratik? Bada, une zailetan erakundea eusteko izan duen gaitasuna, eta etengabeko konpromisoa.

«Oso-osorik betetzen ditu Martak baldintza horiek: Hurkoaren hasieratik dago erakundeari lotuta; ongi ezagutzen du erakundea eta, gainera, adinekoen arretarekin lotura estua duenez bere ibilbide profesionalak, balio erantsi are handiagoa dakar berekin».

José Luis de la Cuesta

Ospatu berria du Hurkoak bere 35. urteurrena. Zer azpimarratuko zenuke erakundearen ibilbidetik?

M.A.A.: Ideia bakar batean laburbildu beharko banu, zera esango nuke: gizarteari entzuten jakin duela Hurkoak. Sorreratik bertatik egon da oso erne, gizartearen benetako beharrak detektatu eta, hori abiapuntu duela, konponbideak eraikitzeko prest.

Sortu zenean, jada nabaritzen hasia zen biztanleriaren zahartzea; harrezkeroztik, aldatu egin da, egituratu, eta gizartearen zein legediaren aldaketa eta egoera berrietara egokitu. Nire ustean, moldatze-gaitasun hori du Hurkoak bere indargune nagusietakoa.

J.L.C.: Nire bizitzako zati oso garrantzitsua izan da Hurkoa. Ekimen zehatz bat zen hasieran Fundazioa, eta ikusi dut nola hazi den, jarduera-lerro ugariako antolakunde bihurtu arte: tutoretza-lana, eguneko zentroa eta hauskortasuna.

Asko pozten nau Hurkoaren bilakaerak, gaur egun gizartean eta erakundeetan duen aintzatespenak.

Zer nolako bilakaera izan du Fundazioak urteotan?

M.A.A.: Nabarmena izan da aldaketa, bai antolakuntzan, bai arreta eskaintzeko moduan. Hasieran, pisu handia zuen boluntarioen lanak, baita gaur egun profesionalen esku soilik dauden eginkizunetan ere.

Denborak aurrera egin ahala, egitura sendoa eraiki zen, ondo trebatutako eta antolatutako talde profesional ez osatua, baina hurbiltasun-espíritu hari uko egin gabe. Egun, diziplinarteko lantaldeak ditugu, non elkarrekin jarduten baitira alor sozial, juridiko eta administratiboetako adituak.

Bestalde, ahalegin handia egin du erakundeak zerbitzua herritarrengana hurbiltzeko, eta gure lurraldeko zenbait lekutan egiten du lan. Horrela, hobeto jabetzen da tokian tokiko egoeraz, eta gertuagoko arreta eskaintzen du.

J.L.C.: Nabarmena izan da, bai, aldaketa, eta zabalkunde hori —toki gehiagotan jardutea, alegia— bilakaeraren alderdirik esanguratsuenetakoa izan da, zeinak ideia oso argi bat baitu oinarri: ez gaitzezen zain egon jendea guregana etor dadin; guk joan behar dugu herritarrengana.

Esanguratsua izan da, halaber, jarduera-eremu berriak gureganatu izana; besteak beste, gaixotasun mentalak dituztenen arreta, eta laguntza-neurrien hazkunde jarraitua.

Laburbilduz, Hurkoaren hazkundeak ongi eutsi dio profesionalizazioaren eta hurbiltasunaren arteko orekari, batzuetan zaila izaten den arren.

«Egun, lantaldeek eragiten didate ilusiorik handiena: haien lan egiteko erak, lankidetzak, konpromisoak...».

Marta Álvarez de Arcaya

«Arazoei aurea hartzen bikain asmatu du Hurkoak: desgaitasuna noiz iritsiko zain egon beharrean, alde zurretik laguntzea erabaki du».

José Luis de la Cuesta

Zein izan dira ibilbide horretako lorpen nagusiak?

M.A.A.: Nire iritzian, hau da lorpen handienetako bat: pertsonak lehenesten dituen arreta-eredu bat sendotu izana. Kontzeptu teoriko hutsa dirudi, baina aldaketa sakona dakar berekin: desgaitasunari begiratu beharrean, gaitasunei begiratzen diegu; pertsonaren orde z erabakiak hartu beharrean, lagundu egiten diogu erabakiak hartzen.

Bestalde, bere nortasuna galdu gabe gizarte- eta legeria-aldaketetara egokitze ko Fundazioak duen gaitasuna azpimarratuko nuke.

J.L.C.: Bat nator ikuspegi horrekin, eta erantsiko nuke lorpen handienetako bat laguntza-neurrietan lana sendotzea izan dela. Hain zuzen ere, horixe da gaur egun Hurkoaren lan-lerro indartsuenetako bat.

Bestalde, garrantzi handia izan du Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko harremana indartu izanak ere, lankidetzaredu argi go baten ateak zabaldu baitzizkigu.

Eta jakina, apustu estrategikoa izan zen hauskortasunaren lerroa zabaltzea. Izan ere, artean ez zen erabat aitortzen gai horren garrantzia, baina guk funtsezko arazotzat geneukan jada.

Alor juridikoak ere pisu handia du Hurkoan. Elementu bereizgarria du Fundazioak?

M.A.A.: Bai, zalantzarik gabe. Dihardugun alor guztietatik, juridikoak garrantzi oso handia du, eta beste erakunde batzuetatik bereizten gaitu, nolabait.

Arlo konplexua da, hizkera propioa du eta zuzen-zuzeneko lotura sistema judizialarekin. Sektore horrekiko esperientzia duten taldeak edukitzeak balio erantsi oso handia ematen dio gure erakundeari.

J.L.C.: Horrela da, bai; funtsezkoa izan da Hurkoaren garapenerako alor horren sendotzea. Fiskaltza, auzitegi eta ingurune juridikoarekiko harremana ezinbestekoa izan dugu gure lana behar bezala egin ahal izateko.

Gainera, espezializazioak garrantzi itzela du alor horretan, eta Hurkoak ongi asmatu du ezagutza hori eraikitzen.

Aldatu egin da arreta-eredua azken urteotan. Zer deritzozu aldaketa horri?

M.A.A.: Nabarmena izan da eredu-aldaketa, batez ere legeen aldetik: lehen, babesari ematen zitzaion lehentasuna; orain, berriz, gizon-emakumeen autonomia lehenesten da.

Hori dela eta, orain gehiago entzun behar da, gehiago galdetu, pertsona bakoitzaren lehentasunak eta nahiak kontuan hartu behar dira... Ez da lantegi erraza izaten beti, baina bide horretatik jo behar dugu.

J.L.C.: Ikuspegi-aldaketa hori izan du oinarri hauskortasunaren lerroak ere. Hona lerro horren ardatza: ez da itxaron behar arazoa konponezin bihurtu arte; lehenago esku hartu behar da, lehenago eskaini laguntza eta, ahal den neurrian, prebenitu.

Esku-hartze sozialari ekiteko beste modu bat da, proaktiboagoa.

«Orain arteko bidetik jarraitu behar du Hurkoak: erakunde hurbila izan behar du, konprometitua, guztiz gizatiarra».

José Luis de la Cuesta



Biztanleria zahartzen ari den honetan, zein da Hurkoaren eginkizuna?

M.A.A.: Bistako joera da zahartzearena, baina zahartzeko modua ere aldatzen ari da. Gaur egungo adinekoek beste behar izan batzuk dituzte, beste kezka batzuk, eta euren geroaz erabakitze behar handiagoa.

Horregatik, desgaitasun-egoerei ez ezik, beste hauei ere erreparatu behar die Hurkoak: hauskortasunari, nahi gabeko bakardadeari eta etorkizunaren planifikazioarekin lotura duen orori.

J.L.C.: Beharrezkoak izaten jarraituko dute Hurkoaren egungo lerroek; seguru aski, geroz eta beharrezkoagoak. Beraz, zera da gakoa: nola eutsi hurbiltasuna, lankidetzeta eta apaltasuna oinarri dituen lan egiteko modu horri

«Gaur egun, desgaitasunaz ez ezik gaitasunaz ere hitz egiten dugu, jendeari erabakiak hartzen laguntzeaz...».

Marta Álvarez de Arcaya

Zure ustean, zer desafio izango dituzue datozen urteetan?

M.A.A.: Nire iritziz, hauskortasunaren lerroa eta egoerei aurre hartzekoa garatzen jarraitu behar dugu, zainketen eremuko aurretiazko borondateak ere barneratuz.

Bestalde, lantaldeak sendotzen jarraitu behar genuke, baita boluntariora ere, gure nortasunaren alderdi garrantzitsua dugu eta.

J.L.C.: Nire ustean, badago zer egina oraindik ere laguntza- neurrien finantzaketari dagokionez, egiten den lan guztiak merezi duen aitortza jaso dezan.

Gizartean, berriz, geroz eta handiagoa da kezka hau: nola antolatu norberaren zahartzarora. Eta Hurkoak asko lagundu dezake arazo horri dagokionez.

Funtsezkoa da, antza, sareko lana. Zergatik?

M.A.A.: Konplexuak direlako esku artean ditugun arazoak, eta ezin zaielako ekin ikuspegi bakar batetik. Beste elkarte batzuekin batera egin behar dugu lan, erakundeekin eta era askotako profesionalekin elkarlanean.

J.L.C.: Etengabea izan da elkarlan hori Hurkoaren ibilbide osoan; asko ikasi dugu beste esperientzia batzuetatik, eta konponbide asko eraiki ditugu denon artean.

Zer azpimarratuko zenuke Hurkoako lantaldeetatik eta boluntarioetatik?

M.A.A.: Zalantzarik gabe, lantaldeak dira Hurkoaren eragilea; haien konpromisoak, profesionaltasunak eta hurbiltasunak markatzen du gainerakoekiko aldea.

J.L.C.: Lantaldeen profesionaltasuna ez ezik, haien gizatasuna ere azpimarratuko nuke nik. Boluntarioen lana, berriz, ezinbestekoa da arreta profesionala ez ezik hurbil-hurbila ere eskaintzeko.

Azkenik, zer nahi zenukete egitea Hurkoak etorkizunean?

M.A.A.: Orain arteko bidetik jarraitzea nahi nuke, hots, gizartearen beharrei erne, sortzen diren egoeretara egokituz, lagunduz..., betiere gure nortasuna alde batera utzi gabe.

J.L.C.: Orain arteko bidetik jarraitu behar du Hurkoak: erakunde hurbila izan behar du, konprometitua, guztiz gizatiarra.

Testuinguru soziala etengabe aldatzen ari den honetan, etapa berri bati ekin behar dio Hurkoak, jarraitutasuna eta bilakaera bidaide dituela. Presidente-aldaketa, berriz, ez da inolako haustura, baizik eta balioak, ibilbidea eta konpromisoa partekatzen dituzten bi ikuspegiren arteko trantsizio naturala.

Aurrera jarraituko du Fundazioak, José Luis de la Cuestaren esperientzia eta legatuaren eta Marta Álvarez de Arcayaren energia berriaren laguntzarekin, bere izaerari leial: gizarteari entzuten, sarean lan egiten eta pertsonak ardatz dituela beti. Izan ere, desafioak aldatu arren, Hurkoaren funtsezko eragilea hau da gaur egun ere: pertsonetako konpromisoa, eta arreta hurbila, gizatiarra. Bat datoz horretan José Luis eta Marta.

Hurkoa

HURKOAREN 35. URTEURRENA

*35 urte Gipuzkoako herritar zaurgarrienak zaintzen,
babesten eta haiekin batera gizarte hobea eraikitzen*

Pasa den azaroaren 20an ospatu zuen Hurkoak bere **35. urteurrena**, EHUko Carlos Santamaría Zentroan. Oso ekitaldi berezia izan zen, eta **140 bat lagun** bertaratu ziren: erakunde publikoetako ordezkariak, profesionalak, boluntarioak, patronatuko eta erakunde laguntzaileetako kideak eta Fundazioaren ibilbidearekin nolabaiteko lotura izan duten zenbait pertsona.

Aurrekuak eman zien ongi-etorria ekitaldira inguratu zirenei; ondoren, zenbait erakundetako ordezkariak hitz egin zuten: Hurkoako presidente **Marta Álvarez de Arcayak**, **Mikel Aramburu** bikarioak, **Lide Amilibiak** Eusko Jaurlaritzako gizarte zerbitzuen goi ikuskaritzako organoaren zuzendariak eta **Maite Peña** foru-diputatuak. Guztiek goretsi zuten Fundazioak hiru hamarkada eta erdiko epe honetan egindako lana, betiere adineko, desagaitasuna duten eta hauskortasun-egoeran dauden pertsonen laguntzen.

Notariotzako Kontseilu Nagusiko presidente izandako **José Ángel Martínez Sanchiz** notarioaren hitzaldia izan zen jardunaldiko ekitaldi nagusietako bat. «Desgaitasunerako borondatezko laguntzak» zuen izenburu hitzaldiak, non gogoeta hau egin baitzuen hizlariak: garrantzi handiko eginkizuna da hauskortasun-egoeran daudenei laguntzea eta haiek zein haien eskubideak zaintzea.

«Urrezko H-en» banaketa

«Urrezko H-ak» ere banatu ziren urteurrenaren ekitaldian. Hurkoaren garapenari eta sendotze-prozesuari biziki lagundu dioten gizon-emakumei ematen zaien saria da «Urrezko H-a», aintzatespen sinboliko bat.

Aurtengo ekitaldian, hauek izan dira saridunak:

- **Javier Zubizarreta**, Azkoitiko alkate ohia, herri horretan Hurkoa eta Hauskor bultzatzeko egindako lanagatik eta ahaleginagatik.
- **David Mayor**, Estatuko fiskaltza nagusiko desgaitasunaren eta adinekoen unitateko fiskala: adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen eskubideen aldeko etengabeko konpromisoagatik.

Bestalde, omenaldi berezia egin zitzaion Fundazioaren hasieran esku hartu zuten lagun hauei, erakundearen lehenbiziko urratsetatik eta haren ibilbide osoan harekiko izandako konpromisoagatik: **Evelia Canterari**, **Marta Álvarez de Arcayari** eta **José María Seguraren** alaba **Blanca Segurari**.

Ekitaldia amaitu aurretik, argazkia atera zitzaion omenduei eta agintariei (denak elkarren ondoan zirela); Uxue Kerejetak musika-emanaldi bat eskaini zuen, gitarra lagundurik; agur-hitzak egin zituzten José Ignacio del Pozok eta Marta Álvarez de Arcayak, eta, azkenik, luntxaren ordua iritsi zen: une aproposa oroitzapenak eta esperientziak gogoratzeko eta etorkizunaz mintzatzeko.



2020-2024

- 30. urteurrena: Hurkoaren jarduera soziala eta geroarekiko konpromisoa sendotzea **2020**
- Eguneko zentroa: mikrobus berria eta eguzki-plakak instalatzea **2022**
- Azkoitiko Hauskor programa kudeatzeko lehiaketaren esleipena **2023**
- Eguneko zentroa: irisgarritasun-arauetara egokitzea eta energia aldetik hobetzea **2023**
- Hitzarmena Pasaiaiko Udalarekin Hauskor programa garatzeko **2023**
- Jardunaldiak, Desgaitasunari Laguntzeko Neurriei buruzko Lege berriaren aplikazio erreala ebaluatzen **2023**
- Pasaiaiko Udalarekiko hitzarmena berritzea, 2027ra arte **2024**
- 35. urteurrena **2025**

2000-2009

- Tutoretzari buruzko biltzarra, estatu mailakoa, Atzegirekin eta GFArekin batera antolatua **2000**
- ISO 9001 ziurtagiria Mesedetako Gure Amaren eguneko zentroari **2001**
- Arrasateko egoitzaren inaugurazioa **2003**
- Zaintzaren Etika Batzordearen sorrera, Matia-Hurkoa **2006**
- Lehen Plan Estrategikoa **2007**
- Hurbiltzen, landa-eremuan adinekoak zaintzeko programa **2009**

2010-2019

- 2014** Hurkoa Zainduz Fundazioaren sorrera (egoitzak eta eguneko zentroa kudeatzeko erakundea)
- 2014** Irungo egoitzaren inaugurazioa
- 2015** Lehenbiziko «Urrezko H-ak» banatu ziren. Hartzaileak: Aurora Elósegui eta Evelia Cantera
- 2015** Tutoretza bidezko arretarako zentro baten inaugurazioa (Tolosa)
- 2016** GFAREN Boluntariotzaren Saria
- 2016** Morlanseko egoitza berriaren inaugurazioa (Donostia)
- 2017** Azkoitiko egoitzaren inaugurazioa
- 2017** Kontratu-programa sinatzea GFArekin, tutoretza arloan eta Eguneko Zentroan

1990 - 1999

- 1990** Hurkoa Fundazioa sortu zen
- 1993** Lehenbiziko bi tutoretzak bereganatu zituen Hurkoak
- 1998** Tutoretza onartzen duten familiei aholkularitza eta laguntza emateko programa
- 1999** Cáritasen adinekoentzako programa onartu zuen Hurkoak
- 1999** Cáritasen adinekoentzako Laguntza Etxea eta Ntra Sra de las Mercedes eguneko zentroen kudeaketa
- 1999** Gaixotasun mental larriak dituzten adin nagusikoen tutoretza

Desgaitasunerako borondatezko laguntza

Elkarrizketa José Ángel Martínez Sanchiz notarioari

Hurkoaren 35. urteurrena gogoan, zenbait gairi buruz jardun zaigu José Ángel Martínez Sanchiz: desgaitasuna duten pertsonen laguntzeko eredu berria, 8/2021 Legea onartu eta gero; notariotzaren funtzioa, eta norberaren autonomia, duintasun eta borondatearekiko errespetu handiagoa duen gizarte bat eraikitzearen garrantzia.

Hurkoaren 35. urteurrena ospatzen dugun honetan, zein izan da desgaitasuna duten pertsonen aldeko borondatezko laguntzari buruzko zure hitzaldiaren mezu nagusia?

Lehenik eta behin, ohore handia izan zen niretzat Hurkoaren 35. urteurrenako ekitaldian parte hartzea, bai eta erantzukizun itzela ere, Fundazioarekiko lotura berezia bainuen. Izan ere, nire aitaginarreba — José María Segura Zurbano— izan zen Hurkoaren sortzailea eta lehenbiziko presidentea. Ekitaldian hori guztia gogoratu zutenez —jokabide adeitsua, zinez—, une oso hunkigarria izan zen nire emaztearentzat eta niretzat.

Gainera, nire aitaginarrebari izugarri interesatzen zitzaien gai bat jorratu zen hitzaldian: gizartearen aldeko lana, beti biziki arduratu zuen arazoa. Bere kristautasunak bultzaturik garatu zuen berak konpromiso hori; lehenbizi, Donostiako Cáritasen zuzendari jardun zen urteetan eta, ondoren, Espainiako Cáritaseko presidenteorde gisa.

Baina alor pertsonaletik haratago ere bereziki hurbilekoa dut borondatezko laguntzen gaia, oso gertutik jarraitu bainuen 8/2021 Legea onartzeko prozesu guztia. Sasoi hartan, Notariotzaren Kontseilu Nagusiko presidentea nintzen, bai eta Aequitas Fundaziokoa ere, zeinak urte asko baitzeramatzan desgaitasunari duten pertsonen laguntza juridikoa ematen.

Hurbileko laguntza ematen du Hurkoak... Nola uztartu egungo ikuspegi juridikoa errealitate sozial horrekin?

Alor zibilean, desgaitasuna duten pertsonen autonomia aitortzen du 8/2021 Legeak. Eta sekulako aldaketa eragin du aitortza horrek desgaitasuna ikusteko moduan: beste guztiok bezala tratatu behar dira pertsona horiek ere; ezabatu egin da orain arte erabiltzen zen ezgaitze judiziala, eta lehentasuna ematen zaie borondatezko laguntza-neurriei, zeinak eskritura publiko bidez formalizatu behar baitira.

Egitatezko zaintza ere babesten du legeak eta, jakina, laguntza-neurri judizialak ere hor daude, behar direnerako. Testuinguru horretan, funtsezkoa da Hurkoaren eta antzeko fundazioen lana, laguntza judizialeko ez ezik, borondatezko laguntzetarako ere.

Gaur egun, pertsona batek bere konfiantza ingurukoengan ez ezik —senitartekoengan, normalean—, zenbait fundazio eta erakunde juridikotan ere jar dezake, betiere esperientzia egiaztatua eta funtzio sozial argia badute. Hurkoa dugu erakunde horietako bat, eta aitortza zabala du haren lanak, baita ingurune hurbilenetik harago ere. Espainiako biztanleriaren zahartzeari buruz Málaga egin zen Espainiako Notarioen Biltzarrean, esate baterako, Hurkoaren esperientzia hizpide izan genuen. Espainia osoak du Fundazioaren jardueraren islada.

Aldaketa nabarmena eragin du 8/2021 Legeak, bistakoa denez. Zure iritzian, zein da gure gizarteak bereganatu beharreko pentsaera-aldaketa nagusia?

Batez ere gogoeta bat egitera behartzen gaitu Legeak. Denok gara hauskorak, denok ditugu mugak, eta denok izan ditzakegu zailtasun are handiagoak etorkizunean. Horregatik, oso garrantzitsua da hauskortasun-kontzientzia partekatu horretatik begiratzea desgaitasun duten pertsonen, eta behar bezala balioestea nola egiten duten aurrera, oztopoak gorabehera.

Notario naizen aldetik, oso pozgarria zait ikustea desgaitasuna duen pertsona bat testamentua egiten edo bere laguntza-neurri propioak proposatzen. Izan ere, horrelako egoerek zera adierazten dute, kasu askotan: familia barruko harremanen sendotze izugarria eta ingurune afektiboaren garrantzia.

Desgaitasunerako laguntza instituzionala bihurtu gaitu legeak notariook, eta hau da gure eginkizuna: haien borondatea

adierazten laguntzea, ahal dugun neurrian, eurek dituzten baliabideak edo eskura ditzakegunak erabiliz. Esperientzia berri bat da, eta eguneroko jardunak erakusten digu denoi nola hobetu gure lana.

«Legea ez da mendekotasun-sistema bat, baizik eta —ahal den neurrian— autonomia handiagoa lortzeko bide bat».

Ordezkatze-sistema batetik laguntza-sistema batera aldatu gara. Zer eragin du horrek pertsona baten eguneroko bizimoduan?

Batez ere aitortza eskatzen du. Gogoan dut notarioarenera joan zen emakume bat, semea —Down sindromeduna— berekin zeramala. Une hartan, ama hari zen sinatzen, semearen ordeaz, baina gazteak ere ondo asko zekien zertaz ari ziren, eta berak ere sinatu nahi zuen. Izugarrizko ilusioa egin zion sinatzeak; aurpegia argitu egin zitzaion. Handik aurrera, notarioarenera joan behar zuten bakoitzean, pozarren abiatzen zen bera ere.

Keinu xumea dirudi, baina oso garrantzitsua da. Izan ere, zera aitortzen zaio pertsona horri: bere nortasun propioa duela, bere pentsaera; parte hartzeko eta kontuan hartua izateko gaitasunaren jabe dela, familian ez ezik handik kanpora ere. Horrek guztiak areagotu egiten dio autoestimua eta, kasu askotan, lagungarri izaten da bere gaitasunak hobeto garatu ditzan.

Jakina, kasu guztietan ezin da egin hori. Badira konponbide errazik ez duten mugako zenbait egoera, eta badaude desgaitasuna edo oztopo larriak dituzten pertsona asko laguntza egokiekin molda daitezkeenak.

Gogoan dut, halaber, adierazpen-arazo larriak pairatu arren antzerkiari esker haiek gaintitzen ikasi zuen mutil gazte baten kasua. Zertan lan egiten zuen galdetzen bazitzaion, harro asko erantzuten zuen aktorea zela. Ikasten jarraitzen zuen, pixkanaka-pixkanaka aurrera egiten zuen, bazekien nola menderatu eguneroko bizimoduko zenbait egoera (erosketak, dirua administratzea...). Funtsezko zera bat frogatzen digu horrek guztiak: desgaitasuna dute pertsonak ere behar dute autoestimua, aitortza eta konfiantza.

Zure ustez, behar bezala ulertzen dute herritarrek aldaketa hori?

Denok barneratu behar dugu aldaketa hori. Noski, ez da di-da batean gauzatzen: badira eremu lausoak, gai zailak, muturreko egoerak..., sistema berriarekin ongi uztartzen ez direnak. Baina, denboraren poderioz, uste dut fruituak emango dituela eredu horrek, eta dagoeneko ematen hasia da.

Denok ikasi behar dugu lege hori aplikatzen: notariook, epaileek, fiskalek, familiekin, erakunde sozialekin... Legeak bakarrik ezin ditu konpondu arazoak; haiek leuntzen edo bideratzen lagundu dezake, betiere egokiro eta behar bezala aplikatzen bada.

Arauek akatsik baldin badu, argitaratu egin behar dira, zuzendu ahal izateko. Baina garrantzizkoena honako hau da: legea baliagarria izatea, eta ibilian-ibilian frogatzea gizartearentzat onuragarria dela.

Borondatezko laguntzak» aipatu dituzu. Zertaz ari gara, zehazki?

Honetaz ari gara: pertsona batek aldeztu aurretik erabaki ahal izateaz zer laguntza-mota nahi duen jaso etorkizunean, edo desgaitasuna duela ere aukera hori edukitzeaz. Alegia, mugaren bat dutenek ere aukera izan behar dute etorkizuneko balizko egoerak aurreikusi eta neurri horiek hartzeko, gutako edonork bezala.

Oso erabaki gomendagarria da; esate baterako, pixkanaka gaitasunak galtzeko arriskua sumatuz gero [Alzheimerren gaitza...]. Legeak aukera ematen du erabaki horiek «neurria» diseinatzeko —traje baten antzera—, norberaren borondatea, lehentasunak eta biziera kontuan hartuta.

Zenbait jendek ez du nahi —inondik ere— zaharren egoitza batera joan, muturreko egoeraren batean ez bada. Beste batzuek, berriz, ez dute nahi euren etxea saltzerik. Bakoitzak bere nahiak eta lehentasunak adieraz ditzake, eta jarraibide zehatz-zehatzak ezarri.

Neurriak zenbait ekintza burutzeko laguntza izan daitezke kasu batzuetan, edo beste batzuetan eskritura publiko batean jaso daiteke pertsona jakin batzuk erabakiak hartzen lagunduko dutela. Hor daude, bestalde, prebentziozko ahalordetzeak, zeinek aukera ematen baitute ordezkariak izendatzeko. Halako



desgaitasun-maila batera iristean bakarrik erabili daitezke neurri horietako batzuk; beste batzuk, berriz, berehala sartzen dira indarrean, baina baliozko izaten jarraitzen dute gerora agertzen diren desgaitasun-kasuetan ere.

Nolanahi dela ere, pertsonak du lehentasuna, beti: erabakitze gaitasuna duen bitartean, bertan behera utz ditzake neurri horiek. Bestalde, inor ahalordetzeak ez du esan nahi norberaren kabuz jarduteari uko egiten zaionik: erabakiak hartzen jarrai dezake pertsona horrek, eta behar duenean bakarrik eskatu laguntza.

Neurri judizialekin alderatuta, zer abantaila dute mekanismo horiek?

Hona abantaila nagusia: pertsonak berak egoerari aurrea hartu eta bere etorkizuna antolatze aukera du, premia-egoera batek auzitegiara jotzera noiz behartuko zain egon beharrean.

Familiaren laguntzak tradizio handia izan du —eta du— Espainian; sarritan, egitatezko zaintzaren bidez gauzatu ohi da. Lehen, prozedura judizial bat jarri behar izaten zen martxan egoera jakin batzuk juridikoki legeztatze eta, jakina, familia askok ez zuten bide horretatik jo nahi izaten. Borondatezko neurriek, aldez, bide gizatiarragoa eskaintzen dute, malguagoa eta norberaren autonomiarekiko errespetua duena.

Bestalde, abusuak prebenitzeko babes-neurriak erabiltzea ere ahalbidetzen dute. Oso garrantzitsua da hori, laguntza-neurri orok, konfiantza sortzeaz gain, kontrol-mekanismoak ere aurreikusi behar baititu.

Behar bezala ari gara aprobeztatzen tresna horiek, ala oraindik ere ez dira aski ezagunak?

Oraindik ere ez dira aski ezagunak. Gizarte-erakundeek bai, ezagutzen dituzte eta lan handia ari dira egiten trebakuntzari eta dibulgazioari dagokionez, baina prozesu honek denbora eskatzen du, eta pedagogia soziala, erruz.

Denoi eragiten digute tresna horiek. Izan ere, gutariko edonor aurki daiteke bihar desgaitasun-egoera batean, gaixotasun edo istripuren batengatik, edo zahartzeagatik. Horregatik, naturaltasunez pentsatu behar dugu arazo horietaz, eta aurreikusi egin behar ditugu, baina ez ohiz kanpoko zerbait balira bezala, baizik eta gure bizitzaren antolakuntzaren beste alderdi bat bezala.

Eredu berri horretan, zein da notarioon eginkizuna?

Laguntza instituzional bat da notarioa. Eta hori da sistemaren berrikuntza nagusietako bat. Lehen, praktikan, honako hau

zen eskema: familiaren laguntza, izatezkoa, eta errekurtsio judiziala, ezinbestekoa gertatuz gero. Orain, ordea, borondatezko neurriei ematen zaie lehentasuna, eta eskritura publikoan formalizatu behar dira neurri horiek.

Hori dela eta, garrantzi handia du notarioaren lanak: Izan ere, neurri horiei forma juridikoa ematea ez ezik, beste erantzukizun bat ere badugu notariook: aholku eman, azaldu, abusuak prebenitu eta pertsonak nahi duen hori ondo eta eraginkortasunez jaso.

Eginkizun konplexua da, baina notariotzaren baitakoa, guztiz. Horretarako jaito zen notariotza, hain juxtu ere: zailtasun handienak dituztenei laguntzeko, eta berezkoa du bokazio hori.



Funtsezkoak ari zarete bihurtzen notariook pertsonen autonomia bermatzeko ekinean?

Bai, autonomia hori segurtasun juridikoarekin eta behar diren bermeekin adieraztea nahi badugu. Baina notarioaren lana ez da soilik alderdi teknikora mugatzen, eta zera da garrantzitsuen: jendea lasai irtetea notariotzatik.

Desgaitasuna duten pertsonetaz zein haien senideez ari naiz. Lasaitasunak ez baitu preziorik. Kontua ez da askatasuna eta babesa elkarren aurka lehiatzea, kontzeptu kontrajarriak balira bezala, baizik eta oreka harmoniatu bat bilatzea, batez ere pertsonaren borondatea aintzat hartzen duena.

Zure esperientziaren arabera, zein dira —gaur egun— alor horretako kontsultarik ohikoenak?

Bi dira egoerarik ohikoenak, nire ustean: alde batetik, gaitasunak galtzen ari direla sentitzen dute zenbait pertsonak, edo, adinean aurrera egin ahala, etorkizuna nola antolatu hasten dira pentsatzen. Kasu askotan, testamentua edo aurretiazko borondateak formalizatzean egiten dira galdera horiek.

Bestalde, senideek ere galdera asko egiten dituzte; gauzak ondo egin nahi izaten dituzte gurasoek, anai-arrebek, hurbileko jendeak..., eta seme, alaba, anaia edo arreba

desgaitu baten aldeko laguntza nola antola daitekeen jakin nahi izaten dute.

Horiek izaten dira bi biderik ohikoenak. Kasu batzuetan, pertsonak berak ematen du lehen pausoa; beste batzuetan, berriz, senideek bultzatzen dute prozesua. Oso ohikoak dira egoera biak, eta guztiz ulergarriak.

Zure ibilbidearen arabera, zer da garrantzizkoena zaurgarritasun-egoeran dagoen norbaiten borondatea errespetarazteko?

Lehentasuna pertsonak duela ez ahaztea, hori da garrantzitsuenak. Pertsonaren borondatearen, nahien eta lehentasunen inguruan biratzen da sistema osoa. Ez du esan nahi horrek laguntzaren beharrari ez ikusiarena egin behar diogunik, baina saihestu behar dugu babesak pertsona hutseratzea.

Familiatan, tentsio hori beti hor egoten da. Babesteko joera izaten dute familieek, eta gauza naturala da hori. Baina horregatik, hain zuzen ere, bilatu behar da oreka. Denak asebate behar ditu babes-neurriak, bai, baina batez ere desgaitasuna duen pertsona bera.

“Anaitasun-adierazpena da desgaituei laguntzea: denok dugu elkarren beharra, eta denok laguntzen diogu elkarri”

Laguntza-sistema horretan, zein da senideen eginkizuna? Eta Hurkoarena eta gisa bereko erakundeena?

Familiak funtsezkoak dira, ezinbestekoak; lehen lerroan borrokatzen dira, egunero bizi dira desgaitasunaren arazo guztiekin, eta beste inork baino hobeto ezagutzen dituzte pertsona bakoitzaren beharrak, erritmoak eta kezak.

Hurkoak eta antzeko erakundeek, berriz, jarraitutasuna, esperientzia, egitura eta laguntza eskaintzen dute. Pertsonak desagertu egiten dira, baina erakundeek hor segitzen dute. Horregatik, egitura egonkor bat eskain dezakete, batez ere desgaitasuna duten pertsonen senideek ez badakite zer ekarriko duen geroak eurak jada ez daudenean.

Zein dira eredu hori aplikatzeko oraindik dauden arazo nagusiak?

Alor bat baino gehiagotan ditugu erronkak: alor juridikoari dagokionez, legearen aplikazio praktikoa doitzen jarraitu beharko da, seguruenik, eta arazoak eragiten dituzten alderdiak detektatu. Eta alor zibil hutsetik landa, berriz, badira desgaitasuna duten pertsonen eta haien senideen eguneroko bizitzan eragin handia duten beste gai batzuk

ere: zuzenbide zibilekoak, arazo fiskalak, laguntzari eta ekonomiarri dagozkionak...

Oso arau aurreratua da 8/2021 Legea, seguru aski alor horretan mundu osoan dauden aurreratuenetakoa. Baina horretxegatik finkatu behar da behar bezala praktikan. Legeak ongi funtzionatzea eta emankorra izatea, hori da garrantzizkoena.

Badago praktikan paternalismoz jarduten jarraitzeko arriskurik?

Bai, arrisku hori beti dago hor. Horregatik da hain garrantzizkoa ikuspegia aldatzea, zeren eta babesak ez du ez ordezkatzeko, ez paternalismo bilakatu behar: autonomia sustatu egin behar du, ez hura ezabatu.

Legea ez da mendekotasun-sistema bat, baizik eta independentzia gehiago lortzekoa, ahal den neurrian. Badakit kasu batzuetan utopikoa ematen duela asmo horrek, baina bide horretatik jo behar da, pausoz pauso.

Zer mezu bidaliko zenioke bere etorkizuneko laguntzak antolatzeari oraindik ekin ez dionari?

Lehenik eta behin, ez larritzeko esango nioke. Gauza horiei patxadaz ekitea da onena, norbera ongi dagoenean, ez muturreko egoera batera iritsitakoan. Gauza bera gertatzen da testamentuarekin: amaieran egin daiteke, baina hobe da —beti— aldeaz aurretik egitea.

Gogoeta hori egiteko zenbait une eskaintzen ditu bizitzak: zahartzean, seme-alabak izaten ditugunean, familia bat osatzen dugunean, zaurgarritasunaz pentsarazten diguten egoerak sortzen zaizkigunean gure inguruan... Gauzak aurreikustea eta izutzea ez direla gauza bera, hori ulertu behar dugu; lasaitasunez prestatu behar dugu dena, noizbait laguntzarik behar izanez gero gertatzea nahi genukeena, alegia.

Idea nagusi batean laburtu beharko bazenu Hurkoan izandako eskuhartzea, zein izango litzateke?

Desgaitasuna duten pertsonen laguntzea kausa on bat dela, anaitasuna adierazten baitu, eta anaitasunak mugiarazi egin behar duela gizartea. Batzuetan, gure mundu honetako presak eta estutasunak tarteko, ahaztu egiten dugu zer den garrantzizkoa. Eta hau da: denok dugula elkarren beharra.

Guk desgaitasuna duten pertsonen laguntzen diegu, bai, baina haiek ere laguntzen digute guri, etsenplu emanez eta zera gogoraraziz, izaki sozialak ez ezik komunitate bat ere bagarela gizakiok, eta anaitasuna duela egiazko oinarri.

Hurkoa Sareginez-en: Gipuzkoan boluntariotza indartzeko sarea

Honetarako sortu zen Sareginez: Gipuzkoako zenbait erakunderen sareko lana sendotzeko, eta gizarte-eraldaketan boluntariotzak duen esku-hartzea indartzeko.

Lehen, sare informala; egun, erakunde aitortua

Sareginez ez da hutsetik sortu: urteak zeramatzan Gipuzkoan boluntariotzan diharduten zenbait erakunderen arteko topagune gisa lanean. Aldian behin elkartzen ziren erakunde horietako ordezkariak, esperientziak, kezkak, baliabideak eta boluntariotza kudeaketa hobetzeko moduak partekatzen. Orain, erregularizatu eginda da lan kolektibo hori: estatutuak idatzi dira, erregistroan inskribatu, eta etapa berri bati ekin dio sareak, elkarte gisa oraingoan.

HurkoakoboluntarioadaBegoñaZubimendi, etaerakundearen ordezkaria prozesu honetan. Begoñak esan digunez, «boluntariotza sustatzea, ikusgai bihurtzea eta prestigio horitza» da Sareginez helburu nagusia. Erakundeak elkarri laguntzeko topagune izan behar du sareak, baita Gipuzkoan boluntariotza sendoagoa, aintzatetsiagoa eta eraldatzaileagoa sustatzeko erreferentzia ere.

Prozesu luzea eta partekatua

Ez da prozesu erraza izan. Bi urte luze eman dituzte sarea juridikoki eratze gogoeta eta barne-lana egiten, eta iritziak kontrastatzen. Zenbait gauza aztertu behar izan ditu erakunde bakoitzak, eta zenbait zalantza argitu: sarean parte hartu ala ez, zer dakarren berekin egitura komun batean aritzeak... «Prozesu luzea izan da», aitortu digu Begoñak, baina dagoeneko eman omen dituzte pauso garrantzitsuenak.

Gipuzkoan boluntariotzaren alorrean diharduten gizarte-erakundeak edo interes orokorreko proiektuak dituztenak biltzen ditu Sareginez. Sarearen xedea ez da boluntariopoltsa komun bat sortzea, baizik eta boluntariotzaren kudeaketa hobetzea erakunde bakoitzean.

Elkarrekin ikasten boluntariotza hobetzeko

Jarduera egokiak partekatze, trebakuntza-saioak antolatze eta funtsezko zenbait gairi buruz gogoeta egiteko aukera eskaintzen du sareak: nola erakarri boluntario berriak, nola lagundu haiei, eta zer egin laguntzen jarrai dezaten.

Begoñaren iritziz, ezinbestekoa da sareko lana: «Elkartasunetik dator indarra», dio. Lurralde txikia da Gipuzkoa, eta indar handiagor aurrera egiten laguntzen du elkar ezagutzeak, lankidetzak eta sinergiak sortzek. Bestalde, elkargune bat eskaintzen die Sareginez erakundeei, bakarrik senti ez daitezen, eta jakin dezaten beste elkarte batzuetan zer gertatzen den eta aldaketei nola ekiten dieten.

Gizartea eraldatu nahi duen boluntariotza

«Boluntariotza eraldatzailea» da sareak biziki sustatzen duen kontzeptuetako bat: kontua ez da eginkizun jakin batean laguntzea bakarrik, baizik eta gizartea eraldatzen saiatzea, bidezkoagoa eta zuzenagoa izan dadin, eta sentiberagoa hauskortasun-egoeran daudenekiko.





Politika publikoetan ere izan nahi du eragina Sareginezek, eta dagoeneko sareko zenbait erakundek hartu dute parte boluntariotzari buruzko gogoeta- eta estrategia-guneetan, bai Gipuzkoan, bai Euskadin.

Jokaleku berria boluntariotzak

Aldatu egin da boluntariotza eta, batez ere pandemiak geroztik, konpromiso puntualagoak eta malguagoak nahi ditu jende askok. Egonkorra zen eredu tradizionala; gaur egun, aldiz, beste partaidetza-modu batzuk azaldu dira: boluntariotza digitala, ingurumenaren aldeko ekintzak, ekitaldietan eta larrialdietan laguntzea...

Erakundeei egoera berri horretara egokitzen lagundu nahi die Sareginezek, eta esperientziak zein jarduteko modu berriak partekatzen.

Etorkizuneko erronkak: sendotzea eta haztea

Hona berehalako erronkak: erregularizazio-prozesua amaitzea, aurkezpen ofiziala egitea, jarduera digitala berritzea, trebakuntzarako eta elkarrekin aritzeko guneak sortzen jarraitzea.

Sare horretan parte hartzeak aukera ematen dio Hurkoari funtsezko eremuetan jarduteko, ekimen erkideetan esku hartzeko eta boluntariotzaren bilakaerari loturik egoteko. Begoñak dioskunez, «altsaren erdian egotea» da kontua, han partekatzen baita informazioa eta hartzen baitira erabakiak.

Laburbilduz, Gipuzkoan boluntariotza indartzeko aukera bat dugu Sareginez, eta ezaugarri hauek ditu: lankidetzak, ikaskuntza partekatua eta etorkizunerantz elkarrekin jotzea.



BOLUNTARIOTZA

Boluntario
parte-hartzaileak: 74

Familien ongizatea areagotu egiten du Ntra. Sra. de las Mercedes eguneko zentroaren zerbitzu zabal, malgu eta gizatiarrak



Funtsezko laguntza eskaintzen die eguneko zentroak adinekoei eta haien senideei: ordutegi zabala, ordutegi modalitate malguak eta pertsonak ardatz dituen arreta.

Baina bada geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari den beste alderdi bat ere: asteburueta zerbitzua. Oraingoz ez da oso ezaguna aukera hori, baina oso baliotsua zaie familia askori.

Horrela azaldu digute zentroko langile diren Noemí Hernándezek eta Carla Pereirak, eta zera azpimarratu: arreta ez ezik beste behar batzuk ere asetzen dituela zerbitzuak, hala nola kontziliazio familiarra, zaintzaileen atsedena eta erabiltzaileen sozializazioa.

Arreta jasotzeko zenbait bide

Hainbat arreta-modalitate eskaintzen ditu zentroak: alde batetik, **lan-astekoa**, astelehenetik ostiralera artekoa; bestetik, jarraikakoa, astelehenetik iganderakoa. Eta, horiez gain, hor dago **Sendian** programa ere, zeina Udalaren oinarritzko gizarte-zerbitzuek kudeatzen baitute, familiek atsedeen-tarte bat izan dezaten.

Programa horri esker, asteburueta eta jaieguneetan eguneko zentrori etor daitezke aste barruan euren etxean bizi direnak. Halaber, astelehenetik ostiralera zentrori etortzen direnak arreta areagotzeko aukera dute (**bi asteburu hilean, eta jaiegunak**). Familia bakoitzaren beharretara egokitzen da egun horien antolaketa zehatza.

Asteburua, funtsezko laguntza familientzat

Asteburueta zerbitzua da balio nagusietako bat, familientzako atsedeen-tarte gisara sortua.

Egun horietarako, ingurune segurua, zaindua eta aktiboa eskaintzen du zentroak, eta adinekoei han eman dezakete eguna, haien senideek atsedeen hartzeko, beste eginkizun batzuei ekiteko edo—besterik gabe—beren buruaz arduratzeko aprobetxatzen duten bitartean.

Lantaldeko kideek diotenez, geroz eta hedatuagoa den egoera bati erantzuten dio zerbitzuak; izan ere, familia askok zainketa jarraituak eskaintzen ditu aste barruan, eta tarte bat behar dute erantzukizun horretatik «deskonektatu» eta berriro behar bezala ekiteko zaintze-lanari.

Bestalde, **errutinei jarraitutasuna** emateko ere aukera eskaintzen du asteburuko arretak, batez ere narriadura kognitiboa dutenei, nahasteak eta bat-bateko aldaketak saihestu egiten baitira.

Sozializazioa da onura aipagarrienetako bat. Jende asko desmotibatuta etortzen da, edo bakardade-sentsazioa duela, eta hobera egiten du denborarekin. Aldarte eta bizi-kalitatea hobetu egiten ditu, izan ere, nora joana edukitzeak, beste jende batekin egoteko aukera izateak eta talde bateko kide sentitzeak.

Hona zentroaren filosofia, bi langileok argi asko adierazia: **kontua ez da «zaindu zaitzaten» etortzea hona, baizik eta «denok elkar zaintzea».**

Ordutegi zabala, eta urte osoa lanean

Ordutegia da bereizgarrietako bat, malgutasun handia eskaintzen baitu: aste barruan, **9:00etatik 19:00etara egoten da zabalik zentroa; asteburueta, berriz, 9:30etik 19:00etara.**

Gainera, **urteko egun guztietan egoten da zabalik —abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean izan ezik—**; hori dela eta, jaieguneetan eta familientzat oso «delikatuak» diren uneetan ere eskaintzen du arreta.

Arretaren lehentasuna, pertsonak

Eguneko zentroko lantaldeak bereziki baliatzen du **PAA —Pertsona Ardatz duen Arreta—**, eta, ahal duen neurrian,

erabiltzaile bakoitzaren gustu, beharrian eta bizitza historietara egokitzen ditu jarduerak, errutinak eta laguntzak.

Eguneroko jarduneko zenbait xehetasun txikitan islatzen da ikuspegi hori: lehentasunak errespetatzea; ahal baldin bada, aukerak eskaintzea edo jarduera esanguratsuak proposatzea... Izan ere, funtsezkoa da ongizate emozionalerako norberaren bizitza kontrolatzen dela sentitzea, gauza txikien bidez bada ere.

Zerk bereizten gaituen: jarduerak, elkarbizitzak eta keinu txikiak

Azpimarratzeko moduko jarduerak? Bada, zenbait lekutara (Garberako merkataritza-gunea, Pasaia San Pedro, Sagues...) egiten ditugun irteerak, goizez edo egun osoz. Egun jakin batzuetan, berriz, ekitaldi bereziak antolatzen ditugu: Apirileko Azokan, Errealaren partidetan, Donostia egunean eta abarretan.

Erabiltzaileen gustu eta ingurura egokitutako jarduerak prestatzen ditugu.

Erabiltzaileen artean ere sortu ohi dira elkarri laguntzeko dinamikak, guztiak ere lagungarri haien balio- eta partaidetza-sentimenduak indartzeko. Elikadura ere norberaren beharretara moldatzen dugu: menu pertsonalizatuak prestatzen ditugu, norberaren gustu edo elikagai-murrizketen arabera. Hartara, sendotu egiten da arreta hurbil eta malguaren sentzazioa.

Gogobetetasun-maila handia familiek eta erabiltzaileek

Zerbitzuaren balorazio oso positiboa adierazten dute gogobetetze-mailari buruzko datuek: **10etik 9,37koa** da erabiltzaileen eta haien senideen batezbestekoa, eta goranzkoa da azken urteotako joera.

Zenbait alderdi ebaluatu ditu inkestak —tratua, arreta, jarduerak, elikadura, garraioa, zentroaren balorazio orokorra...—, eta erantzunek berretsi egin dute zerbitzuaren erabiltzaileen gurekiko konfiantza-maila handia.

Lantalde egonkorra eta zaildua

Plantilaren egonkortasuna da Hurkoaren beste indarguneetako bat. Profesional askok urteak daramatzate —hamarkadak, batzuek— zentroan lanean; hori dela eta, oso ondo ezagutzen dituzte erabiltzaileak, eta familiek konfiantza handia dute haiengan.

Jarraitutasun horri esker, hurbilagoa eta pertsonalizatuagoa da arreta, betiere elkarrekiko harremana eta esperientzia partekatua oinarri direla.

Norbait izaten jarraitzeko leku bat

Laguntzaz eta arretaz haratago, adinekoak baliozkoak,

lagunduak eta estimatuak sentitzen diren leku bat ere bada eguneko zentroa.

Errutinak mantendu, harremanak izan eta talde bateko kide izateko tokia, alegia.

EGUNEKO ZENTROA:

Arreta

Lanegunak Plazak: **62**

Artatutako pertsonak: **80**

Jaiegun eta asteburuetan

Plazak: **45**

Artatutako pertsonak: **39**

Profila sexuaren arabera

Lanegunak Emakumeak: **82,5%**

Gizonezkoak: **17,5%**

Jaiegun eta asteburuetan

Emakumeak: **87,18%**

Gizonezkoak: **12,82%**

Batez besteko adina

Lanegunetan: **86 años**

Jaiegun eta asteburuetan: **86 años**

Mendekotasun-maila

Lanegunak

Mendetasun arina [1. gradua]: **%15**

Mendekotasun larria [2. gradua]: **%48**

Mendekotasun handia [3. gradua]: **%36,25**

Jaiegun eta asteburuetan

Ez baloratuak: **%2,5**

Mendetasun arina [1. gradua]: **%2,63**

Mendekotasun larria [2. gradua]: **%57,9**

Mendekotasun handia [3. gradua]: **%39**

Pepi Astigarraga,

Gustura nago hemen, eta ikasten jarraitzen dut

Asteburuetan etortzen da Pepi Las Mercedes eguneko zentrorra, zeinari «eskola» deitzen baitio, hemen ikasten —eta gozatzen— jarraitzen omen du eta. Hiru bat urte daramatza era guztietako jardueretan parte hartzen: kartatan eta bingoan jokatzeko, abesten, josten eta ariketa txiki batzuk egiten. «Zer egiten duzu etxean?», dio —natural-natural—, zera aldarrikatu nahirik edo: aktibo, lagundurik eta gogotsu jarraitzearen garrantzia.

Lasarten jaio zen Pepi, eta etengabeko lana izan du bidaide bizitza osoan —gerraostea, Michelinen langile...—, baina indartsu eta baikor, beti. Egun seme-alabekin bizi da, eta zentroan aurkitzen du bizipenak partekatzeko, laguntzeko eta ondo sentitzeko topagunea. «Ez naiz kexatzen», diosku, irribarretsu.



Emilia Urkiola,

Hemen, aktibo gaude, eta lagun artean; etxean, aldiz, nagitu egiten gara

Legazpiarra da Emilia, eta Pasai San Pedrora joan zen 21 urte zituela; harrezkeroztik, han eman du bizi osoa. Egun, Hurkoa Zainduzek duen eguneko zentrora etortzen da astelehenetik ostiralera. «Oso gustura» sentitzen da zentroan, aktibo eta lagun artean egoteko aukera eskaintzen baitio. Eta, giro horretan, hurbileko harremanak sortu dituzte bertaratzen direnek, aldezturik elkar ezagutu ez arren.

Zentroaren balorazioa egitean, alderdi hauek azpimarratu ditu: antolakuntza egokia, lantalde

profesionalaren tratua eta garraio-zerbitzua (zentroan jaso eta etxeko atearen ondoan uzten dute, «erregina bat banintz bezala»). Bestalde, zentroak lagunduegiten omendio bere ongizate fisikoari eta emozionalari, eta aktibo jardunarazten; horregatik, zalantza-izpirik gabe gomendatzen du eguneko zentroa: «hemen, aktibo gaude, eta lagun artean; etxean, aldiz, nagitu egiten gara». Azkenik, zera azpimarratzen du, bizimodu normal, egituratu eta zentzudun batez gozatzen jarraitzearen garrantzia.



Elkarrekin Bila: errutina alde batera utzi eta bide berriak partekatzeko esperientzia

Hamar urtetik gora dira Elkarrekin Bila proiektuan parte hartzen hasi zela Hurkoa. Arantzazuk sustatzen du ekimena, zeinak egonaldi laburrak eskaintzen baitizkie egoera pertsonala, soziala edo ekonomikoa direla medio atseden-esperientziak nekez izan ditzaketenei bere eguneroko ingurunetik kanpo.

2014an sortu zen ekimena, **Arantzazuko frantziskotarren komunitatea** sustatzaile eta Eusko Jaurlaritzak laguntzaile zituela. Helburua, berriz, argi askoa zen: zailtasun handienak dituen jendeari zabaltzea leku horren ateak, eta bizikidetzaren, atseden- eta ongizate-esperientzia bat eskaintzea, ingurune berezi batean.

Hurkoari dagokionez, batez ere hauei dago zuzendua aukera hori: osasun mentaleko arazoak, narriadura kognitibo **arina edo zaurgarritasun-egoerak** pairatu arren esperientzia horretan esku hartzeko adina autonomia dutenei. Hiru egunez, irteera arrunt bat baino askoz gehiago den esperientzia bat partekatzen du erabiltzaile-talde batek, Hurkoako zenbait profesionalak lagundurik.

Baina Elkarrekin Bilaren benetako balioa zera da, jardueren

artean gertatzen den hori: presarik gabe solasean aritzea, besteek diotena entzutea, elkarrekiko loturak sendotzea, eta ohiz kanpoko esperientzia bat bizitzea.

Parte-hartzaile askorentzat **bereziki baliotsua da aukera** hori, bide egokia baita eguneroko ingurunetik irteteko, dinamikaz aldatzeko eta, jende askoren kasuan, egun gogoangarri batzuek gozatzeko, bestela ez bailukete horretarako modurik izango.

Estimazio handia du jarduera horrek, eta oso balorazio ona jaso ohi du. Parte hartu izan duten askok galdetzen dute —urtero— ea berriro ere etor daitezkeen.

Izan ere, batzuetan, lekuz aldatzeak ere laguntzen du norberaren buruarekin jarduten.

Laguntza-neurriak: erabakian lagundu, duintasuna zaindu

Hurkoa 1990ean jaio zen, premia oso zehatz bati erantzuteko: narriadura kognitiboagatik edo bestelako zailtasunengatik beren eguneroko bizitza administratiboan eta ekonomikoan beharrezko laguntza emateko gai zen familia-ingurunerik ez zuten adinekoei laguntzea.

Harrezkero, erakundeak bilakaera izan du gizartearekin eta lege-esparruarekin batera. Hastapenetan ezgaiketaz eta tutoretzaz arduratzen bazen, gaur egun ikuspegia oso bestelakoa da. 8/2021 Legea indarrean sartzeak aldaketa sakona ekarri zuen: helduen ezgaiketa **desagertzen da eta tutoretza adingabeentzat soilik mantentzen da.** Adinez nagusi direnentzat, laguntza-neurriez hitz egiten hasten da sistema.

Aldaketa hori ez da soilik juridikoa; arreta ulertzeko modu berri bat ere islatzen du. Helburua ez da jada pertsonaren borondatea ordezkatzeari, bere gaitasun juridikoa baldintza berdinetan gauzatu ahal izateko beharrezko laguntzak eskaintzea baizik.

Erreferentzia nagusiapertsonaren borondatea, nahiak eta lehentasunak

izatea, betiere pertsonaren duintasuna zainduko duen eta abandonu- edo kalte-egoerak saihestuko dituen esparru baten barruan.

Hurkoan, egikaritzen diren laguntza-neurriak judizialak dira. Artatutako pertsona bakoitzak gizarte-erreferente batek, administrazio-erreferente batek eta erreferente juridiko batek osatutako talde bat du. Erreferente sozialak harreman zuzena eta jarraitua mantentzen du pertsonarekin eta bere inguruko profesionalekin; administraria kudeaketa ekonomikoaz eta ohiko izapideez arduratzen da; eta juridikoak legezko gaiak jorratzen ditu epaitegian kontuak aurkeztuz eta herentziak, baimen judizialak, alokairuak edo bere eskubideei eragin diezaieketen prozedurak gauzatzuz kontuan hartuz.

Esku-hartzea begirada indibidualizatu batetik abiatzen da beti. Kasu bakoitza egoera pertsonala, familiarra, ekonomikoa, bizilekua eta osasuna kontuan hartuta aztertzen da. Ahal denean, pertsona bere etxean egon dadin saiaturiko da Hurkoa, behar dituen laguntzekin. Hala ez denean, bere beharretara ondoen egokitzen den baliabidea bilatzen da.

Kudeaketa juridikoaz edo administrazioaz haratago, Hurkoaren lanak dimentsio oso gizatiarra du: bizitzetan bide lagun izatea, erabakiak sostengatzea eta pertsona bakoitzak gizartearen zati bat izaten jarrai dezan laguntzea. Izan ere, babestea ez da norbaitengatik erabakitzea, baizik eta gertu egotea pertsona hori ahalik eta autonomia, segurtasun eta duintasun handienarekin bizi dadin.

2025 DATUAK – HURKOA LAGUNTZA-NEURRIAK

Hurkoa

Artatutako pertsonak: 614

Sexua

Gizonak: **332**

Emakumeak: **282**

Adina

80 urtetik gorakoak: **152**

65 eta 79 urte bitartekoak: **181**

50-64 urte: **197**

30-49 urte: **77**

29 urtetik beherakoak: **7**

Familiak

Familia-kontsultak: **219**

Amaia Barea: “Gipuzkoako familien zerbitzura jartzen dugu gure esperientzia”

Familien alorreko Hurkoako lantaldearen koordinatzaileak, Amaia Barea, bertatik bertara ezagutzen du haien errealitatea (konplexua eta, sarri askotan, ezezaguna). Hurbileko pertsona batek erabakiak hartzeko laguntza behar duenean orientabideak eta laguntza eskatzen dituzten familiez ari gara. Hurkoak eskaintzen duen zerbitzuaren berri eman digu Amaiak, zeinak 20 urtetik gora baitaramatza erakundean. Hona datu adierazgarri bat: joan den urtean (2025ean) Gipuzkoako 219 familiari lagundu zien Hurkoak.

Zer da, zehazki, Hurkoaren Familientzako Zerbitzua?

Laguntza behar duen pertsona bat dela-eta egoera zailak jasaten ari diren familientzako orientazio-, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzu bat da. Funtsean, hau da gure egitekoa: antzeko egoeraren bat jasaten duten Gipuzkoako familia batzuekin urteen poderioz eguneroko jardunean Hurkoak metatutako esperientzia guztia partekatzea.

Zein da zerbitzuaren balio nagusia?

Bada. esperientzia hori, hain juxtu ere. Aspalditik ari da lanean Hurkoa, era askotako kasuak tarteko; hori dela eta, orientabide guztiz praktikoak eskain ditzakegu, errealistak eta erabat eguneratuak. Oso ongi dakigu nola funtzionatzen duten prozedurek,

baliabideak eta zer zailtasun dituzten familiek eguneroko jardunean.

Zer laguntza-mota eskaintzen duzue?

Alde batetik, orientabideak eta aholkularitza eskaintzen dugu gai hauei buruz: neurri judizialak, borondatezko erabakiak, baliabideak, zainketak eta laguntza behar duen pertsonaren eta haren familiaren egoerari dagozkion beste zenbait. Bestetik, zenbait prozedura judizialetan ere laguntzen diegu familiei, betiere abokatu eta prokuradore baten esku-hartzea nahitaezkoa ez bada.

Zertan datza laguntza judizial hori?

Idazkiak prestatzen laguntzen dugu, behar den dokumentazioa biltzen, zer neurri izan daitekeen egokiena baloratzen eta prozeduraren jarraipena egiten. Inoiz ere ez gara abokatu gisa jarduten; familien zerbitzura jartzen dugu gure esperientzia, askotan zaila eta ezezaguna zaien bide horretan laguntzeko.

Zein dira 2025eko zerbitzuari buruzko datuak?

2025ean, 219 familiari lagundu genien; horietatik, 162k orientabideak eta aholkularitza jaso zituzten, eta beste 57ri kargu judizialaren jardunari dagozkion prozeduretan lagundu genien.

Zein da zuen laguntza jasotzen duten familien profila?

Era askotakoak daude. Narriadura kognitibo handiena dutenak etortzen zaizkigu gogora gutako askori, baina askoz zabalagoa da errealitatea: gaixotasun mentalak, demenziak, hartutako kalte zerebrala, produktu jakin batzuen kontsumoak



eragindako egoerak, laguntza-behar handia duten gazteak eta beste hainbat eta hainbat... Oso zabala da gure laguntza jasotzen dutenen multzoa.

Familiekin ez ezik, beste eragile batzuekin ere egiten duzue lan?

Bai. Izan ere, gure lanaren alderdi garrantzitsua da solaskide izatea —eta, batzuetan, bitartekari— zenbait erakunderekin: auzitegiak, notariotzak, gizarte-zerbitzuak, Osakidetza, banketxeak eta abar. Kasu askotan, noraezean bezala iristen dira familiak, eta informazioa ez ezik, laguntza ere behar izaten dute, zer pauso eman eta norekin hitz egin behar duten jakiteko.

Lege-aldaketa esanguratsuak erabaki dira azken urteotan. Izan du horrek eraginik zuen zerbitzuan?

Izugarria. Lege-erreformak aldatu egin ditu figura juridikoak, prozedurak eta zenbait egoera interpretatzeko epaitegiek, notariotzek eta bankuek duten ikuspegia. Asko ikastera behartu gaitu aldaketa horrek, etengabe eguneratzera eta familiei testuinguru berri eta —batzuetan— ulertzeko erraza ez den egoera batean laguntzera.

Borondatezko neurriei buruzko aholkularitza ere eskaintzen duzue?

Bai, eta geroz eta gehiago, gainera. Orientabideak ematen ditugu gai hauei buruz: prebentzio-neurriak, autokuradoretza, alde aurreko borondateak eta etorkizunerako zenbait erabaki aurreikusteko beste formula batzuk. Aurretiazko lan horrek gerora arazoak sortzea eragozten du, kasu askotan, edo egoera zailetara hobeto prestatuta iristen laguntzen die familiei.

Zer azaldu nahi zenikete gizarteari memoria honen bidez?

Gogorarazi nahi dugu orientatzea, aholku ematea eta laguntzea dela gure egitekoa. Eta kontsulta bakoitzaren atzean egoera oso gogorak ikusten direla, oso zailak, eta familiek biziki eskertzen dutela entzuten, ulertzen eta laguntzen dituen erakunde bat aurkitzea.

Gipuzkoan artatutako familiak: 219



HAUSKOR: mendekotasunari aurrea hartzea

Bada halako eremu lauso bat autonomia osoaren eta mendekotasunaren artean, eta gutxi hitz egin ohi da gai horri buruz. Etxean bizitzen jarraitzen dute kognitiboki ongi dauden zenbait adinekok eta, itxura batean behintzat, independenteak dira, baina haien babes-sarea ahulduz joan da denborak aurrera egin ahala. Isilpeko hauskortasun-egoera batera eraman ditzakete pertsona horiek familia-edo gizarte-harremanak galtzeak, nahi gabeko bakardadeak edo eguneroko bizimoduko zenbait alderdi kudeatzeko zailtasunek.

Horretarako sortu zen **Hauskor, adinekoen hauskortasun soziala prebenitzeko** eta haren aurka jarduteko, pertsona lehenesten duen ikuspegi komunitarioa eta prebentziozkoa baliatuz. Baina Hauskorren helburua ez da mendekotasuna sustraitu denean esku hartzea, baizik eta hari aurrea hartzea: hauskortasun-aztarna goiztiarrak detektatzea, eta laguntzea adinekoari bere ohiko ingurunean seguru, duintasunez eta autonomiaz bizitzen jarrai dezan.

Izan ere, ez dira gauza bera hauskortasun soziala eta mendekotasuna, eta arazo bakarra ez da bakardadea. Konplexuagoa da egoera: pixkanaka, babesak galtzen ditu adinekoak; geroz eta zailagoa egiten zaio eguneroko beharrak asetzea, harreman esanguratsuak izatea, bizi-proiektu propio bati eustea...

Hauskor-ek dioskunez, oraindik ere «gai diren» pertsonen

buruz mintzatu ohi gara sarritan, baina jende hori pairatzen hasia da beldurrak, segurtasun eza, isolamendua eta eguneroko bizitza nabarmen baldintzatzen dien zenbait zailtasun praktikoa.

Udaletako gizarte-zerbitzuekin koordinatuta jarduten da programa, haiek identifikatzen baitituzte hauskortasun-egoerak, eta martxan jartzen laguntza-programak. **Baturan** tresna ere baliatzen dute horretarako. Hauskortasun soziala neurtzeko eta kasu bakoitzera egokitutako esku-hartze espezifikoak diseinatzeko baliabide espezifikoak da Baturan, Deustuko Unibertsitateko gizarte-laneko zenbait ikertzaileekin batera sortua.

Nabarmena da ikuspegi-aldaketa: lehen, mendekotasuna jada errotua zegoenean erreakzionatzen genuen; orain, berriz, **prebentzioaz eta detekzio goiztiarraz baliatzen gara.**

Baina Hauskorren zaintza-lana ez da bulegotik egiten, gizartean bertan baizik. Zein den bidea? Bada, kalera irtetea, konfiantza sortzea, pertsonak beren ingurune errealean ezagutzea, gizartearekiko loturak sustatuz pertsonaren sare sozialak indartzea, eta detekzio- zein laguntza sareak eraikitzea farmazia, osasun-etxe, denda, elkarte, auzo eta bestelako toki-eragile batzuekin elkarlanean.

Xumea da ideia, baina eraldatzailea ere bai: **komunitateak ere zaintzaile izan behar du.**

Artatutako pertsonak: 58

24 Azkoitian

34 Pasaian





Zenbait kasu praktiko: **eredua praktikara eramatearen zerak**

Azkoitia: harremanak ehuntzen, hauskortasuna detektatu eta laguntza eskaintzeko

Azkoitian, **Bizipoza** programarekin eta Udalaren gizarte-zerbitzuekin koordinatuta egiten du lan Hauskorrek.

Helburu berak ez dituzten arren, antzekoak dira bi programa horien ezaugarriak: nolabaiteko autonomia-maila dute artatzen dituzten adinekoek, baina ahulak dira horien gizarte-sareak, eta laguntza behar dute. Lankidetzaz horri esker, erantzun integralagoak eskain daitezke, eta egoera bakoitzari hobeto egokitutako jarraipena egin.

Hona lanaren xede nagusiak: hauskortasun-egoeran dauden pertsonen laguntzea eta gizarte- zein komunitate-zerbitzuetara hurbiltzea, haien harreman-sarea sendotzea, eta laguntza eskaintzea euren bizimodua segurtasun handiagoz egiten jarrai dezaten.

Baina banakako arretatik harago ere iristen da eredua, eta komunitate-sare zabala eratu da Azkoitian, non dende, farmaziek, bankuek, osasun-etxeek, notario-bulegoek eta

tokiko beste eragile batzuek esku hartzen baitute. Guztien artean eraikitako begiratoki partekatu horretaz baliaturik, garaiz antzeman daitezke hauskortasun-egoerak.

Programaren arduradunek diotenez, metodologia hori erabiliz hobetu egin da zenbait pertsonaren egoera, eta beharrak areagotu diren kasuetan, lagungarri izan da trantsizio-prozesurako.

Adinekoen erantzuna, berriz, oso positiboa ari da izaten, eta alderdi hauek balioesten dituzte gehienbat: lagunduak sentitzea, eskuragarri dauden baliabideak eta, batez ere, sortzen den konfiantza-giroa.

Zein den azken helburua? Argi asko dago: adinekoek ahalik eta denbora gehien jarraitu ahal izatea euren ohiko ingurunean, mendekotasun-egoerak atzeratuz eta beren autonomiari eutsiz.

Zenbait kasu praktiko **eredua praktikara** **eramatearen zerak**

Pasaia: zaintza-ekosistema komunitario batetik prebentziora

Pasaian, prebentzioa, gizarte-lana eta hurbiltasuna oinarri dituen arreta-eredu zabal bateko osagaietako bat da Hauskor. Herriko zaintza-ekosistemako pieza bat da programa, non udalaren gizarte-zerbitzuak baitira gidari eta lurraldeko eragile ugari esku hartzen baitute.

Udalak adinekoen arreta-eredua sendotzea erabaki zuenean hasi zen aldaketa. Izan ere, jabetua zen Udala gizarte-zerbitzuak iristerako mendekotasun-egoerak oso aurreratuak zeudela, kasu askotan. Beraz, argi zegoen zer egin behar zen: lehenago hasi lanean, detekzio goiztiarra eta prebentzioa bultzatu.

Horretarako, sendotu egin zen lantalde profesionala, eta aldatu esku hartzeko modua: bulegotik irten beharra zegoen, jendearen etxeetara joan, gizartearen arazoak partekatu, eta harreman hurbilagoak eta konfiantzazkoak eraiki herritarrekin.

Eredu horretan, hau da Hauskorren ekarpena: laguntza espezializatua gizarte-hauskortasuneko egoeretan, baina sare zabalago bateko partaide gisa, gizarte-zerbitzuekin, osasun-etxeekin, farmaziekin, dendekin, elkarteekin, gizarte-baliabideekin eta herritarrekin batera.



Lan partekatu horri esker, lehenago atzeman daitezke hauskortasun-egoerak, lehenago esku hartu daiteke, eta askoz hobeto ezagutu daiteke jendea. Hori dela eta, erantzun doituagoak eta eraginkorragoak eskaini daitezke.

Ikuspegi komunitario horretatik sortu da, besteak beste, **Finiren Txokoa** prebentzio-eremua, pertsona hauei zuzendua: autonomoak edo hauskortasun-maila arinekoak izan arren gizarte-harremanak, jarduerak, laguntza edo, besterik gabe, beste batzuekin egoteko leku bat behar dutenei.

Jende guztiak ez ditu behar berberak, izan ere: batzuek, solasaldi bat izan nahi dute; beste batzuek, jarduera kognitiboa, laguntza digitala, proposamen kulturalak..., edo etxetik irteko ohitura berreskuratu eta zerbaiten partaide sentitu.

Ederki laburtzen du ikuspegi pertsonalizatu eta komunitario horrek ereduaren filosofia: **kontua ez da beharrak asetzea bakarrik; baliabideak ipini behar dira jendeak bere komunitatean ahalik eta denbora gehien jarrai dezan.**

